

# Juan Garmendia Larrañaga

## Telesforo Aranzadi-ren, etnologiazko zenbait gai



32



**1988.** Aita Manuel Larramendi, Telesforo Aranzadi eta "Orixe"-ren etnologiazko zenbait gai : Iru itzalditan oiñarritzen dan idaz-lana / Juan Garmendia Larrañaga. – Donostia : Kriselu, 1988

**1998.** Aita Manuel Larramendi, Telesforo Aranzadi eta "Orixe"-ren etnologiazko zenbait gai : Iru itzalditan oiñarritzen dan idaz-lana / Juan Garmendia Larrañaga. – En : *Mitos. Etnografía*. – (Euskal Herria. Etnografía. Historia. Juan Garmendia Larrañaga. Obra Completa ; 5). – Donostia : Haranburu Editor, 1998

---

## 2007

Telesforo Aranzadi-ren, etnologiazko zenbait gai / Juan Garmendia Larrañaga ; azala Yulen Zabaleta "Yulen". – Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2007. – 18 or. : ir. – (Juan Garmendia Larrañaga Bilduma ; 32). – ISBN: 978-84-8419-095-0

---

### Azala

Yulen Zabaleta "Yulen"



---

## EUSKO IKASKUNTZA - SOCIEDAD DE ESTUDIOS VASCOS - SOCIÉTÉ D'ÉTUDES BASQUES

Institución fundada en 1918 por las Diputaciones Forales de Álava, Bizkaia, Gipuzkoa y Navarra.  
Miramar Jauregia - Miraconcha, 48 - 20007 Donostia - Tel. 943 31 08 55 - Fax 943 21 39 56  
Internet: <http://www.eusko-ikaskuntza.org> - E-mail: [ei-sev@eusko-ikaskuntza.org](mailto:ei-sev@eusko-ikaskuntza.org)

Fotokonposaketa: Michelena artes gráficas. Astigarraga  
Digitalizazioa eta argitalpen elektronikoa Gipuzkoako Foru Aldundiaren dirulaguntzarekin

# **Telesforo Aranzadi-ren, etnologiazko zenbait gai**

Juan Garmendia Larrañaga

**Orria**

---

Kredituak

Telesforo Aranzadi etnologiazko zenbait gai ..... 3

## TELESFORO ARANZADI



*TELESFORO DE ARANZADI*  
(Bergara, 1860 - Barcelona, 1945)

## Telesforo Aranzadi

---

Nere alorrean Telesforo Aranzadi jakintsua eta benetan aberatsa dugula eztago esan bear aundirik. Au onela izanik, nere ekintza Aranzadiren zenbait lan ardatz antzera artuaz, neronen ikuspegi eta ikerketaren barnean egiten saiatuko naiz. Eta nola ez, nere gaurko orri auen neurrian, noski.

Esango dugu jakintza zientzia dela, eta aldaketa edo eboluzioa, teknika. Aranzadik onela dio:

La cultura del pueblo, la verdaderamente popular que, por no acostumbrar la historia escrita apenas más que a espumar la vida de las naciones, queda abandonada en el hondón, es lo que constituye el objeto de su etnografía o folklore; esta cultura es (...) la suma de todas las adquisiciones mentales de una época, y su conservación y desarrollo sólo son posibles en la reunión de convivientes y conexión de descendientes. En cuanto a la cultura de las clases ilustradas exclusivamente, no puede ser objeto de esta ciencia<sup>1</sup>.

Au nere iritziz, orokorki gauza ikusirik, onela da. Baiñan, artxiboetan, paper-sorta zaarretan arkitzen ditugu ere, kanpo ikerketaren osagarri balio-tsua. Neretzat beñepein onela izan da, bein baiño geiagoetan.

Baiñan, nola nai ere, Aranzadi bere bidean dabil, esaten dunean:

(...) No nos fiemos de nombres aprendidos de memoria en las lecturas sin conocimiento directo del objeto, pues es una gran mentira aquello de

Yo con erudición cuánto sabría (Yakintza, III, 465 or.).

Emen, interpretazio edo adierazgarri irristakorraren inguruan arkitzen gera. Eta au onela, interpretazioarekin bat-batean oroitzen zait nekazari baten gertaera: Aran zugaitz bat erosi omen zioten oni, Pedro donaren irudia lortzeko.

---

1. Aranzadiren aipamenak bere *Etnología Vasca* (Auñamendi) liburuan oiñarritzen dire, batik-bat.

Beartzan lekuan irudia jarri ondoren, au jendearen ikus-bide izan zan. Batzuen begiek zur-irudiaren arpegian ezartzen ziren, beste batzuenak erro-petan, giltzetan eta abar.

Au onela, gure nekazaria san Pedroren irudiaren aurrez-aurre begira zego-ala, onela esantzion:

Gloriosísimo san Pedro,  
Yo te conocí ciruelo  
Y de tu fruta comí;  
Los milagros que tú hagas  
Que me los cuelguen a mí

*(Cuentos folklóricos españoles del Siglo de Oro, Maxime Chevalier-etik artua).*

Hoy se tiene generalmente por prenda característicamente vasca la *boina* y sin embargo su difusión por el país es contemporánea de Zumalacarregui, aunque disminuyendo su vuelo, suprimiendo el arete rígido y la borla y poniéndola con el cerco hacia dentro; parecería haber venido del otro lado del Pirineo, pero, a pesar de usarse en la mayor parte de éste, también los franceses la consideran característica del vasco,

dio Aranzadik. Eta onek, onela idazten du ere:

pero después de venir así a parar a la no originalidad de la *boina* entre los vascos, no han conseguido precisarnos de manera convincente en qué país empezó a usarse.

Txapela edo zapela ikustea naikoa dugu ertilari baten lana ez dela jabe-zeko, Gonzalo Manso de Zuñigak esaten du, eta Zerdeñako irudi baten oiña-rrituaz, Kristo baiño bi milla urte aurretik ere erabiltzen omen zan txapela edo txapela antzekoa.

Webster-ek, berriz, bere idatz lan bat txapelatzaz, onela amaitzen du:

He examinado en la Biblioteca de Bayona y en otros muchos grabados del país, del siglo último, pero no he visto en ninguno de ellos la boina, ni entre los tipos bearneses ni entre los bascongados.

Baiña Paulo Zamarripak onela abesten digu:

Chapela nai dot buruan,  
mingañean barriz euskera...  
Biotzean barru-barruan,  
biak daukadaz batera.

Bidez bakarrik esango det, Luteroren irudia ikusiarekin bat-batean, txapela edo zapela bururatzten zaitela.

Txapelgintzak bere garrantzia badu nere sorterrian, leengo gizaldiaren erdi aldezkero. Sarri ikusia naiz emakumea, bere eserlekuan txapel jostearen ekingintzan saiatzen, baita ere gizonezkoa bear dan bezela langaia margotzen.

Tolosako lantegi au ikusi ondoren, onela idatzi zun politiko gizon ezaguna izan zan Indalezio Prietok:

Yo escribiría, si dispusiera de tiempo, el elogio de la boina. La usé siempre, de niño y de muchacho. El primer sombrero que compré fue para casarme, y me dio tanta vergüenza ponérmelo sobre la cabeza que lo llevé en la mano. ¡Ah, cuánto eché de menos la boina el día en que, por deberes de cargo, hube de colocarme un sombrero! La boina da personalidad al que la lleva. En el modo de colocarla se revela toda la psicología de una persona. La boina descubre al jaque, al pendenciero, al tímido, al sabio. Esa misión reveladora jamás la tendrá ningún sombrero y mucho menos el de copa, cuya capacidad extraordinaria parece dispuesta para albergar los humos de algunas pseudopersonas.

(...) La boina, doblada hacia arriba el vuelo en su parte delantera, señala arrogancia y desenfado, análogamente a como los señalaba, con igual doblez, el antiguo chambergo; inclinadísima hacia un lado denota afanes de reto, cuando no sirve, como a un amigo mío para encubrir la falta de una oreja (...). Indalezio Prieto: De mi vida. «El sitio» argitaraetxea.

Txapelatzaz, nere adiskide on Jorge Oteizak ere oar batzuek azaltzen dizkigu bere doai eta suspertasunarekin:

¿Sobre qué lado se coloca la boina del vasco?, ¿qué mano utiliza en esta aparentemente simple operación de colocarse la boina? ¿qué nos revela el comportamiento de sus manos sobre la estructura de su estilo mental? En Fuenterrabía he observado que nuestros *arrantzales* la llevan echada hacia adelante pero dejada atrás en la cabeza. He preguntado a uno de ellos cómo se la pone: instintivamente ha echado su mano izquierda a la boina: con qué satisfacción he comprobado cómo quedaba su mano derecha en el aire como el pelotari que espera para su respuesta que la pelota vuelva de la pared izquierda del frontón (Oteiza *Quousque tandem*).

Igaro gaitezen Emeterio Arreseren olerki batera.

Gogoratzen naiz nola negarrez  
marruka lertu nayan  
ume denboran egondu nintzan  
igande zan goiz batean,  
chapelan ordez amak gïnballa  
jar-arazi ziranean.

Gïnballa, sonbreroa, aipatu dugu Emeterio Arreseren aotik.

La invención de la fotografía llegó a tiempo para retratar algún guipuzcoano con sombrero,

irakurtzen diot Aranzadiri.

Sonbrerogintza. Auxe da garrantzia izan dun gauza bat, oso gutxi aintzakotzaz artzen duguna.

Ginbaillagintza, sonbrerogintza edo kapelugintza lekukoa izan da gure errietako lantegietan.

*Nere Gremios, oficios y cofradías en el País Vasco* izena daraman liburuan zerbait frogatzen det au.

1834go. urtean, Tolosan auetako bi lantegi arkitzen ziren. Aietako baten buru Felipe Rinchan arkitzen zan, eta urtearen zear lau milla eta bosteunetik sei millara sonbrero antolatzen zituzten.

Beste lantegian, 1818 garren urterako Migel Antonio Lasa eta bere seme bat azaltzen zaizkigu nagusi. Auen lantegi-gaiak seireun sonbrero arruntak, bosteun gaingaiñeko maillakoak eta irureun sedazkoak ziren. Baiñan ekintza aietan ere bazituzten beren buruauste ta zalantzak.

Aietako gora-beera bat dala eta, onela irakurtzen dugu, zati txiki batetara mugatuaz.

D. Miguel Antonio de Lasa, vecino de la villa de Tolosa expone a VS. atentamente que desde tiempos antiguos tenía establecida una fábrica de sombreros ordinarios en la misma villa, y deseando el exponente mejorar su fabricación trajo en el año de 1818 oficiales instruidos, desde Francia, con los cuales enseñó a los naturales del País el método de fabricar los finos, en cuya elaboración empleaba doce familias, y además cuatro aprendices, pero se ha visto precisado a despedir a aquellos por falta de despacho procedido de la libre introducción de sombreros de igual calidad desde Francia.

Posteriormente se estableció en la misma villa otra fábrica de sombreros finos que está a cargo de D. Felipe Rinchan, que ocupaba más de cincuenta personas, y aún a presente más de treinta (...), eta abar.

Suplica VS. se sirva disponer que en adelante no se introduzca para el surtido de su territorio sombrero de fábrica extranjera, eta abar. Betiko leloa.

Aprendiz sombrero. Año 1795.

En la villa de Tolosa, a 30 de septiembre de 1795, ante mí el escribano de S.M. del número de ella y testigos infrascritos parecieron presentes de la una parte Manuel Saiz a una con su hijo legítimo José Antonio Saiz, y de la otra Pedro Juan de Cardenal, maestro sombrero, vecino de esta dicha villa. Y dijeron (...), eta abar, le recibí dicho Cardenal en su casa al nominado José Antonio Saiz, y en calidad de aprendiz para que aprendiere el oficio de sombrero con calidad de que hubiese de pasar seis años, obligándose dicho Cardenal a mantenerle en su casa, enseñarle dicho oficio durante el referido tiempo, darle dos pares de zapatos en cada año, y al cabo de los seis, doscientos reales de vellón. Que con motivo de haber invadido esta Provincia las tropas francesas emigró de esta villa dicho Cardenal y se ha mantenido fuera durante un año, quedando dicho José Antonio sin ejercer su oficio. Y ahora habiendo puesto el enunciado Cardenal corriente su casa y oficio, queriéndole recibir a dicho José Antonio aprendiz (...), eta abar. Que asimismo haya de contribuir el nominado Cardenal con siete pares de zapatos o su importe según quiera dicho José Antonio, (...), y son parte de dichos zapatos para los que tenía vencidos en años anteriores (...), eta abar.



1901 garrengo otsaillaren 27ko *El Automovil* izena daraman aldizkarian, oso gutxi ezagutzen dan aldizkaria, onela irakurtzen dugu:

El sombrero, o si Vds quieren, la tapa de las mujeres: El sombrero es el verdadero adorno de toda mujer elegante (...). Los hay de dos tamaños, grandes y mayores. También los hay colosales, pero estos sólo se ven en los teatros.

Varían mucho en su forma. pero su objeto es el mismo, el no dejar ver, más que las bambalinas a los espectadores de un teatro.

A pesar de su antiguo origen es la prenda que menos innovaciones ha sufrido. Es lástima que no se hayan aplicado al sombrero femenino los inventos modernos, ni el fonógrafo ni el cinematógrafo, ni siquiera el teléfono sin hilos.

Aranzadi buru-paiñeluetzaz eta orrazkeraz mintzatzen danean, ille-mototz edo trentatzaz onela dio:

De otra costumbre que fue muy general en Europa, la de llevar las trenzas colgando, dicen los etnógrafos que en Mongolia las doncellas usan una y las casadas, dos; ignoro si esta diferencia ha existido en Europa o en particular en el país vasco, pero lo cierto es que las ñas (nodrizas), dicho sea de paso la inmensa mayoría casadas, usan siempre dos entrelazadas con una cinta que les sirve de travesaño, como tambien muchas etxeoandres vizcainas.

Nik idatzia daukat, nere ikerketa lanen barnean nola Otsagiko –Otxagabia– Karnabal Asteartez unhaiak bere mendiko bordak utzi eta kaleko festara urbiltzen ziren. Nola jantzita? Ba, abarkak eta artillezko pealakin, illezko zaia eta txaketa –itz auek an bertan jaso bezala erabiltzen ditut–, etxeo ariekin erritar euliak landutakoekin.

Eta orain, guretzat interesgarria dan zerbait: unhai napar euskaldun aiek, gerritik beera iristen zizkieten bi ille-mototzekin orrazten ziren, eta mototz aiek zinta beltz bana zeramaten beren muturrean, *zinta muxko* izenekoa.

Mucho contribuye a la esbeltez y erguido de la vascongada su costumbre de llevar, apoyado en un rodete, sobre la cabeza (...), la herrada o el cántaro, en tanto que la castellana lleva su botijo o tinaja sobre la cadera, inclinando el cuerpo al otro lado, oartzen digu Aranzadik

Suillakin aipatzen digu burokotea (Lizartzan), burutea (Arakilgo Zuhatzun) eta khapelia (Larrañe eta Eskiula, Zuberon).

Emakumeak, burukotearen gaiñean saskia zeramaten ere, arrunt xamar ikustea izan dugunez baiñan, esan bezala, Aranzadik suilla gogorazten digu. Ur karretoan erabili izan oi dan suilla (Berastegin), subilla (Etxalarren), ferreta (Eskiulan), perra (Erratzun), perrada (Astitzen), eta abar.

Bere egoera artan ezta arritzekoa festa egitarauetan onelako bat edo antzekoa irakurtzea:

Fiestas Euskaras de Marquina: El 16 de julio de 1883

Una hermosa caldera de cobre, para la mujer que obtenga el primer premio en la carrera de cántaros a la cabeza.

Ur-suilgintza, eta berdin ere kuela edo lixuontzigintza ezagutzea izan det, zurezkoak biek. Ursuilgintza basagaztain zurezkoakin eta legorrear landurikoa, iru suil-burnialdikin.

A pesar del clima húmedo no es país –gure au– de almadrenas (...); pero no son desconocidos sobre todo en la Soule y su nombre *eskalaproiak* es tomado del de los estribos cubiertos. Mucho más general es el uso de las alpargatas, no de esparto sino de cáñamo con lona formando zapato, a diferencia de las aragonesas y valencianas que son en forma de sandalia; pero nombre y material indican origen levantino, Aranzadik.

Bidez, *estribos* gogoratu digu on Telesforok, eta ontaz edatuko naiz zerbait.

Onela askok ez uste izan arren, zaldi oinburni edo eskalapoin onen asmakizunak garrantzi benetako aundia izan zuen.

Aidanean txinarrek sortu omen zuten, gure bostgarren mendealdean. Aurren-aurrenekoa soka-lazo baten tankerakoa izan zitekean. Amabost-amasei garren gizaldietan, eta zaldi erabiltzeari begiraturuz, estribo edo oin-burni au beste asmakizun andienekin berdinkatzen zan.

Zaldi-aulkia aurreneko mendean ezagutu zan, Europako sartaldean, eta garrantzi aundia izan zuan onek ere.

Zalgurdi edo orga, XVI garren mende arte etzan arrunt erabili Europa maillan.

Gauz auek, gure egunetan errez aazten dire; baiña garaia izan zan aurrerapen oso garrantzitsuak izandakoak.

Aranzadira itzuliaz almadreñas izeneko oiñetakoak zurezkoak dire, eskalanpuak (Eskiula, Zuberon), eskalapoinak (Baigorri eta Ustaritzen), eskalpinak (Luzaiden).

Luzaiden bertako azken eskalapineilia, Pedro Jose Auzki, lanean ezagutzeko egokiera izan nuan, bein baiño geiagoetan.

Esan bezala, eskalpin edo eskalapoin auek errialde askotakoak dire, eta bi eratakoak adieraziko ditut: alpargata edo abarka soiñean dala erabiltzekoa, geienez larru zerrenda bat gaiñean duana, eta bestea, berriz, bera soilki jaztekoa.

Espartingintza ez da egun esku-langintza; industri mekanika lan biurtu da. Oraindik ere, ordea, erriren batean ikus-genezake alpargatagille bat edo beste, etxe atarian bere bakar-lanean, aurrekaldean makurtutako zurezko aulkiakin, eztena eskuan duala.

Emen alpargatagille artetsu bat datorkit burura: Juan Mujika esku-langi-  
llea, Albizturkoa zan eta uri ontan igaro zuan ia osorik bere mundualdia. Adis-  
kidea izan nuan Juan Mujika; bizargille ta sakristau izatea gaiñera, olerkaria  
ere izan zan, alpargata gai dutela, berari zor dizkiot bertso auek:

«Alpargata zoruak  
urditu eta josi...  
eskuz egiten nuan  
aspaldi ikasi.

Anima-dun trentza ta  
anima gabea...  
josten zaillago baiño  
au askoz obea.

Anima gabe trentza,  
gizona ainimakin,  
iraunkorrako dira...  
nai ba'dezu jakin

Gizaldi onen asieran  
Azkoitin geienak  
alpargata egiten  
eskuz zekitenak.

Orain aulki t'eztenak  
noski, erdoituta...  
orduko egun ayez  
ez nago aztuta!»

Más características son las abarcas (...). Considerarlas de importación forastera porque se usan también fuera del país es ridículo, cosas mucho más complicadas se han intentado independientemente en países muy distintos, dio Aranzadik.

Gogoan eduki, gauz/oitura asko gureak direla; baiñan ez gureak bakarrik.

Aymeric Picaud, ibiltari arrotzak, XII garren mendean, zurratu edo landu gabeko larruzko abarkak ikusi zituala aitortzen du.

Abarkatzaz asko idatzi da. Neroni ere, abarka eta abarkagintzaren ikerketa ekintzan ibilia nazute, eta ibiliaz, idatzia.

1773 garrengo abenduaren aurren eguneko leitzar olagizona izan zan Domingo Eguzkizaren kontuetan, oarkizun au arkitzen da:

Miguel de Zubiria, pastor, se entró a servir a razón de 20 pesos de soldada, una camisa y medio cuero de vaca para abarca por año.

Onelako oarkizunak edo antzekoak eskuratzea ezta zailla.

Nik erabili deten berririk zaarrena 1370 garren urtekoa da:

De Ponz de Eslava, baile de Tudela, que incluye los conceptos siguientes (...) peaje de las bestias, cueros y abarcas (...). (Archivo de Navarra. Comptos. Tomo LII - Años 1365/1535. Nº 832 - Año 1370 -, pág. 34. Por Florencio Idoate).

Jarrai dezagun

Gaiñetik eta axalez, Aranzadik *faja*, gerrikoa edo *ceñidor*, arrunt jantzia eta erabilia, aipatzen dunean, Aiako errian entzuna bururatzen zait. Gipuzkoar uri onen Altzola auzoan arkitzen zan baserri bateko amonak egiten zuan konjurua, arri-jasaren bildurrez arkitzen zirenean. Areistian gure amon onek, bere gizonaren gerrikoa estola antzera arturik, baserriaren sarrerako atera azalduaz, onela konjuratzen omen zuan:

*Carga Izarraitz, descarga Ernio, guarda Altzola, en demás* (emen bere baserriko izena).

Amona aren otordu aurreko otoitzaren asiera onela izaten zan.

Gure Jainkuak eman deigula osasuna eta pakea, eta goiz-arratseako esnia, eta eguardiako eltzia aragiz betia.

Onen antzekoa det Anoetako urian jaso:

Jaingoikuak eman deigula osasuna eta pakea, goiz-arratsetan taloa eta esnia, egoardian eltzea okelez betea. Intentzio ortako errezatu eta jatea.

El arado (...), además de la denominación general goldia tiene nombres diversos según el número de puntas sea de 1, 3, 4, 5, 7, 9, 16 ó 24; los últimos más bien son rastrillos,

Aranzadik idazten du.

Gizona goldearekin baliatu zan aurreneko aldiz berea bakarra etzan indarrez, lurra lantzeko, egoki asko Lyn Whitek adierazten dun bezala.

Aurreneko goldea makil zulo-egin bat zan, asieran gizonaren indarrez erabilia eta, gero, aberetzaz baliaturik

Neronek ikusirik, Aramaioko azken errementari Doroteo Oar izan zanak lantzen zuan *golda txikixe* izenekoa, sei atal nausitan banatzen zan: golde-egala, goldazura, birari edo orkillie, ezpatie, puntie ta agie.

Aranzadi neurritzaz mintzatzen danean, *goldea* aipatzen du, esanez: *mientras que la yugada (golde) se mide por el trabajo de una yunta*. Aberastu dezagun au pixka bat.

Baserri baten ondasunetzaz itzegiterakoan geroz eta geiago gure egunetan area itza erabiltzen da. Baiñan aberastasun onen ezaugarri, gure aurrekoek onela mintzatzen ziren:

*Bost buru* –beiek geienetan– mantentzen ditun baserria, zazpi buru mantentzen ditun baserria, eta abar.

Edo ta baita ere –Aranzadina itzuliaz–, *goldea* itza alde berean erabiliatz, Erdi Aroko oitura sustraitu bateri erantzunez: *Baserri onek ainbeste golde ditu*.

Eta batek baiño geiagok galdetu dezake: *golde* itz onek zer neurri izan du edo du? Ba 3.333 metro, 333 area.

Neurri kontutan, Aranzadiri beste batzuen artean irakurtzen diot ere: 7 *brazadas* o *estados* (nudo o *gorabilla*). Eta bai jauna, 1651garren urteko Berastegi eta Elduayengo olagizon eta ikazkinen eztabaida baten, beste gauz batzuen artean onela irakurtzen det: *La pitipia se entiende por Gorabilla = Y la gorabilla tiene siete estados o brazadas. Y la brazada o estado tiene siete pies*. Au nere paperetatik jasotzen det.

*Al buey por el asta y al hombre por la palabra*, Aranzadik esaten digu.

Beste lan batzuen artean aipagarria dugu benetan Aranzadik idatzita utzi zigun: *El yugo vasco, uztarría, comparado con los demás, memoria escrita con ocasión de las «Fiestas de la tradición del Pueblo Vasco»: Imprenta de la Provincia*. 1905 garren urtean Donostian argitaratua.

Neroni ere idatzia naiz bein baiño geiagoetan gure uztarritzaz.

Gogoan ditut Aramaioko *buztarrigiñek*, Pedro Bengoa, «Keisti» baserrian, Arexolako auzoan, eta Basilio Ugarte, Liñatzako baserrian, Gantzagako auzoan; ez ditut aartzuko ere Asteasuko *uztargilleak*, Jose Inazio Iraola zana eta Eulogio bere semea; Eugenio Redin Recalde, Biguezabalkoa; Saturnino Vidal Ruiz de Gordoia, Ullibarri Aranakoa, eta leen aipatutako Pedro Jose Auzki, Luzaideko Bentas izena daraman auzoan.

Gure uztarría adarretan tinkatzen da, begizkoaren aurkako tailla aberasgarriak eramanaz. Baiñan auek izkutuan doaz, aberasgarri baiña ez apaingarri. Bestalde, munduan zear *begizkoa* oso zabaldua arkitzen den siniskeria dugu. Esan diteke mundu guztiko sinismena dela, dio René Girard-ek. Bizirik gelditu den aztikerizko sinistea.

Leitzan entzuna det, ganadua uztartzearekin bat-batean, onela esaten omen zutela: *Aingeru Guardakoak gorde gaitzala gaitz guztietatik*, eta bereala Aitaren egin.

De los aperos de labranza el mayor es el carro, de importancia trascendental para trasladar el arreo o equipo de la novia, como también se hace en muchos puntos de Alemania y Suiza. Pero desde Bilbao y Pamplona hasta el Pirineo (no más allá) las ruedas son macizas, de llanta estrecha, formadas por tablas juxtapuestas perpendicularmente a una media viga diametral y reforzadas con mucho hierro en Vizcaya, con poco en Navarra (...),

Aranzadik.

Aipatutako gauz batzuk xeatuko ditut. Gurdia eta ezkon-arreotzaz, asko idatzi da. Kurpillaren egurkiak iru ziran (Berastegi), erdikoa *zille* zeritzana eta saietsekoak berriz, *txantelak* deituak.

*De llanta estrecha*: Burdi-ubela (Apatamonasterio); gurdi-aroa (Berastegi); gurdi-ortza (Ezkioga); gurdiuztaia (Aian), eta abar.

Gurdi-aroa edo gurdi-ortza estua debekatua izan zan, bein baiño geiagoetan. Ikusi ditzagun auetako gertakizun pare bat.

Biltzar Orokorretan: 1840 garren urtean.

Se pasa a la Comisión de Caminos el memorial de Mutiloa para que se permita a sus carreteros llevar vena en carros de llanta estrecha.

Igualmente se enteró la Junta, de otro memorial de la villa de Mutiloa, pidiendo que se permita a sus carreteros llevar vena en carros de llanta estrecha, desde Ormaiztegui a las ferrerías de lurre o larza, y se resolvió que pasase a la Comisión de Caminos.

Gurdiak berea izaten zuen kurrinkada berezia, ezkon-bezperan emazte-gaiaren arrioa zeramatenean.

1777 garren urtekoa:

Oyense por todas partes los chillidos de los carros del servicio de campo, que parecen trompetas de la Semana Santa (Julio-César Santoyo: *Viajeros por Alava - Siglos XV a XVIII*)

1802 garren urtekoa:

Con frecuencia cerca de nosotros rodaban minúsculos carros de labradores con dos bueyes uncidos: sus ruedas no engrasadas, que carecen de llantas, y forman un gran disco (...) y producen un rechinar insoportable, al cual en las comarcas montañosas se le puede oír desde lejos, y según se dice deben servir para asustar a los lobos (...). (Justo Gárate: «Viaje de von Jariges desde Bayona a Vitoria, Bilbao y Burgos...» *Nazioarteko Eusko Ikaskuntzaren Aldizkaria (R.I.E.V)*, 33 garren urtea. XXX garren zenbakia - Bigarren alea. 1985 garrengeko urtea).

1924 garren urtekoa:

(...) le llaman la atención los carros primitivos, cuyos ejes chirrían para que no se aburran los animales. (Kurt Tucholsky: *Un libro pirenaico*).

De importancia etnográfica es en el estudio de los vascos el arte del entallado de los objetos de madera, principalmente en las arcas, pero también en el yugo y otros utensilios (...), Aranzadik esaten digu.

Nolakoa zan aintziñako aroztegi bat?

1800 garrengo abenduaren 12an sinatutako ezkontz itun batean onela azaltzen da:

El referido Juan Ignacio de Jauregui ofreció dar y que daría a dicho José María, su hijo (...), y además, un banco para trabajar en su oficio de carpintería, que eligiese el mismo José María, con su *barleta de fierro*, un serrrote nuevo, un hacha y una azuela nuevas; dos garlopas, una mayor y otra menor; un guillame y una juntera, entregaderos todos estos efectos luego que se efectuare dicho tratado matrimonial (...).

(Gipuzkoako Protokolosen Agiri-paperetatik artua. 579 zenbakia daraman sorta. 1800 garrengo urtea).

Interesgarria iruditzen zait *Aprendiz de carpintero* izena daraman ituna, berak onela dio:

En la villa de Tolosa a 16 de agosto de 1799, ante mí el escribano real del número de ella y testigos infrascritos, parecieron presentes de la una parte D. Pedro Manuel de Ugartemendia, maestro carpintero, y de la otra Francisca Ignacia de Echaniz a una con su sobrino José Ramón de Arrondo, huérfano de padres, vecinos de esta misma villa; y dijeron que dicho Arrondo se hallaba en la casa del referido Ugartemendia, hará poco más de dos años, con ánimo de aprender el oficio de carpintero, y estaban conformes todos en que continúe en calidad de aprender por otros cuatro años corrientes desde el día primero del presente mes, bajo de las calidades y condiciones siguientes:

Que dicho Arrondo haya de servir al referido Ugartemendia en los citados cuatro años con el correspondiente amor, puntualidad, exactitud y esmero en las cosas y (los) trabajos que lo ordenare, siendo afecto a las funciones de la Iglesia, acudiendo sin pretexto alguno a las misas mayores, vísperas y santo rosario los días de fiesta, confesándose a menudo, retirándose a casa a las avemarías, a menos que no sea licenciado por su amo dicho Ugartemendia, y que cumplido el tiempo de dichos cuatro años, pueda salir libremente el indicado Arrondo a donde guste.

Que dicho Ugartemendia le haya de alimentar al referido Arrondo todo el citado tiempo de los cuatro años, vistiendo y haciéndole la limpieza, conforme lo ha hecho hasta ahora, dándole buen ejemplo de religión católica, y le haya de enseñar el oficio de carpintero sin ocultar cosa alguna que sea conducente con principios de geometría, práctica y dibujo.

Con cuyas calidades y condiciones admitió dicho Ugartemendia al referido José Ramón de Arrondo, prometiendole y obligándose con su persona y bienes a complirlas de su parte según fuese justicia. E igualmente se obligan dichos Francisca Ignacia y Arrondo, a que éste cumplirá los cuatro años de su aprendizaje, trabajando y haciendo cuanto le fuese ordenado por el expresado su amo Ugartemendia, sin hacer ausencia alguna; y si lo contrario sucediera se obliga a la citada Francisca Ignacia a volverle a la casa de dicho Ugartemendia y pagar además cualesquiera costas, daños y perjuicios que se ocasionaren (...).

(Gipuzkoako Protokolosen Agiri-paperetik artua. 668 zenbakia daraman sorta. 1799 garrengo urtea).

Aranzadiren idatzitik kutxa aipatu dugu, gurea baiñan ez gurea bakarrik dan kutxa, kutxe, kaxie hutxa, eta abar izenekin ezagutua. Bere berezitasunak bein baiño geiagoetan idatziak ditut, adibidez, nere tesis Doktoralaren sarreran.

No hay que confundir la laya con la azada de dos púas o biortzeko, Aranzadik esaten digu. Gure nekazariak erabili duan lanabes au bi motatakoa izan da. Ortz edo anka luzekoak –Aranzadik oartzen ditunak: la horquilla 67 centímetros y el palo sólo 24– eta anka motz eta zabalak, kirten luzeagokoak, Napar aldean batez ere ikustea izan dituanak.

Itsasondoko errementaria izan zan Jose Luis Arbillak esan ziranez, emakumearentzako laya, gizonezkoarentzakoak baiñan txikiagoa, ariñagoa, lantzen zuten.

*Layarik* izenarekin deituak ziren layan jarduten zutenak, emakumezkoak taldearen erdian arkituaz, beren bere bearra xamurtzearren. Baiñan lanabesak utzita jarrai dezagun aurrera.

Como el vasco –esaten digu Aranzadik– está convencido con el Génesis de que Dios puso al hombre en el paraíso para que lo labrase y cuidase, está muy lejos de creer que la labranza sea una ignominia (...)

Nik, Aranzadiren ariari umoretsu jarraituaz oartxo au ezarriko nioke: Abel artzaia omen zala, eta Kain, berriz, nekazaria.

Aranzadik adierazten digu:

Por si algún viajero muy romántico se viese tentado a creer o inventar otra cosa, he de advertir que el chorimalo o espantapájaros no es un hechizo; los vascos no son menos avisados que los gorriones.

*Txorimalua* (Eskoriatza), *txori-izugarria* (Berastegi), beste erri batzuetan berriz iñautetan, karnabaletan, aratuztetan, mozorrotutakoei deitzen dioten izen berarekin ezagutuak izan oi dire.

Los vascos no son menos avisados que los gorriones,

au irakurtzearekin bat-batean gertaera xeble bat bururatzen zait, Orexan gertatua. Eta gertakizun au ezta besterik *txori-izugarriaren txamarraren patrikan txoriek kabia egin omen zuela*.

Gordon Childek dion bezala, *garagarra* eta *garia* izan dire, gauza orokor ikusiaz zabalean, gure egunetako kultur ondasun oiñarri.

(...), mientras que por otra parte podríamos citar varios puntos del país vasco en que golpean el trigo contra madero o contra piedra *txangeta*, Aranzadik.

Arri onek Azpeitin *txanketa* zun izena, eta gari jotzeak berriz *txanketan* jarduntzea.



*Errementari garie* izena zeraman Ataunen nekazariak errementariari urteko ematen zion gariak, lanabes zorrotz truke.

Eta *segora-garie*, eta berdin artoa, berriz, sendi bakoitzak segorari ematen zion gari edo artoak, Beasaingo Garin auzoan.

Markinan jakin nuan *gari bedeinkatze* baten berri. Pazko egunez egiten omen zan au, eta betebear onengatik nekazari bakoitzak bi ollaskokin ordaintzen zun apaiza.

Baiñan urtetik urtera baserritarren borondatea legortzen joan, eta era berean berdin apaizena ere, onela oitura aaztu arte.

Gauzak onela, etxe bateko amonak onela esan omen zuan: *Aurten abadea etorri ez bada, neuk bedeinkatuko ditut.*

Bereala ur bedeinkatua artu eban txarro baten eta baita ere adaxka edo kimua, esanez:

Ogi bedeinkatu santua  
Lurrian ondratua  
Au jaten dogunean  
Izan dedi nere arima salbatua.

Orain kontatutako au Markinan entzun izan arren, Mendaron gertatua da.

Liñua gogoratuaz, baserritik irtengo gera.

Erdi Aroan liñu lantzea Europan gauz zabaldua izan zan. Liñu-landarea geienetako bat sartaldean erabilia, XVIII garren mendea arte. Liñuzko oiala izan zan, ia bera bakarrik, salmentak Txinaraíño eraman zituana.

Liñutzaz, jarraian esatera noan berri au XIII garren mendekoa dugu, Naparroakoa ain zuzen.

1234 (Circa)

Memoria de los derechos y pechas que pagaban al rey los moros de Cortes, por Navidad, Carnestolendas, Pascua de Resurrección, Pentecostés y San Juan, en gallinas, carneros, huevos, trigo, cebada, legumbres y lino (...). Se indica que el escribano solía decir en la mezquita lo que cogía cada uno de legumbres y lino. (....).

(Florencio Idoate: *Catálogo de los Cartularios Reales del Archivo General de Navarra. Años 1007-1384*).

Adieraziko det, liñua Elizari amarrena bezala ordaintzen zitzaiola.

Aranzadik idazten dunean:

La diseminación de la población hace al país poco a propósito para extralimitaciones de mozos de ronda intensificándose en cambio la vida familiar y cuando los *mutilles* saludan a las *neskachas* con un *agur arrebak*, este saludo verdaderamente fraternal no supone ninguna falta al debido respeto.

Bear bada, gure maixu ospetsua ez da emen oartu *neska-laguntze* oitura-tzaz, illun-ezkillen jo ondoren festan amaigarri, mutillek neskari onen etxerabidean laguntzeari.

Gure bide ingurun erreka ikusirik, almadia oroitzen

(...) la almadía, tripulada por intrépidos montañeses, que la guían por las foces o gargantas, sortean los escollos, saltan las presas por el plano inclinado a ello destinado y en acercándose al Ebro la encomiendan a los ribereños,

Aranzadiri irakurtzen diot.

Almadiatzaz badet lan bat argitaratua, *Valle de Roncal. Paisajes y labores* izena daraman barnean.

Almadiaren zati batzuen izenak bakarrik gogoratuko ditut:

*Barrel, catorcenes, cerco de un tramo de la almadía, cintura, chintura, clavillotes, caboliba, codero* –atzekaldean zijoan gizona–, *docenes, antoka*, eta abar.

De las *lanchas* de pesca, que se construyen y emplean en la costa vascongada muy poco diré, pues estoy muy poco ducho en su tecnicismo,

dio apalki Aranzadik. Baiñan gai ontan ere gizon jantzia dugu Bergarako seme ospetsu au.

Errepikatuko det, Aranzadiren zenbait etnologi lan oiñarri artuaz, nere ikerketaren barnean erabiltzen naizela. Beartsu, baiña nere makuluekin.

Ontzigille maillan, gure berri zaarrenak, konkretoki, noski, Be Erdi Arokoak ditugu. Beste arlo batzuetan ere berdintsu gertatzen bai da. Baiñan ez noa itxas gai au sakontzera, bein baiño geiagoetan egíña bai dut.

Zintzarritzaz mintzatzen da Aranzadi, umoretsu ere. Neroni ere idatzia naiz joaregintzaz.

(...) el cencerrero, un artista del bronce (...). El son de la esquila había de variar en cada rebaño, y su martillo, al modelar el cencerro sabía encontrar el matiz con la seguridad de un gnomo,

Félix Urabayenek idazten du bere *El barrio Maldito* izeneko liburuan.

*Entre las costumbres antiquísimas* Aranzadik gogoratzen dizkigu *las cerradas*.

Tobera auek alargun baten ezkontza isekatuz, burlaz, adierazten zuten, eta 1765 ko irailaren 27 ko zedula baten Karlos III-ak debekatu zitun. Baiñan agindu au etzan goizetik gaubera bete, erriaren oitura eta bizimoduak berak baztertu zuten.

Aranzadi etzan zezen zalea:

Los vascos no tienen en general por juego ni mucho menos por espectáculo la lucha o lidia. La de toros tiene todas las trazas de contagio, mucho más lamentable de barreras arriba que de barreras adentro, mucho más como escuela de mala educación, de crítica estúpida y de insubordinación irracional que como endiosamiento de un matarife. Digan lo que quieran nuestros *civilizadores*, muchísimo más compatible con la civilización es el *zezen-zusko*.

Larramendi ere etzan zezen festaren zalea, baiñan ontaz beste era batera idatzi zigun:

–y es tal y tan grande esta afición (la taurina), que, como se dijo por chiste de los de Salamanca, si en el cielo se corrieran toros, los guipuzcoanos todos fueran santos por irlos a ver en el cielo.

Gure artean erri-jolas au oso aintziñekoa dugu kezkarik gabe. Ontaz ez dira gutxi gure errietan arkitzen diran agiriak. 1549 garren urteko berriak baditugu Tolosan, San Juan jaietako zezenketaz (Tolosako Udal Artxibotik jaso).

Aranzadik ez ditu aaztutzen umen jokuak –juegos de niños y niñas–. Eza-gutu nituen Arabako Kanpezoko eskulangille batzuek, *txirrikeros* izenekoak. Lantegi aietan trompa edo sibak lantzen zituzten, beste gauz askoren artean. Egun, txirrikeru aiek denak izkutatuak dire.

Gogoratuko ditut emen joku batzuen izenak, argibide bezala, besterik ez: *Arrapaketan* (Azpeiti); *bukanas-jokia* (Urdiñarbe); *ixkilima jokua* (Baigorri); *katarra eta matarra* (Albiztur); *mukamas txatxa* (Muskildi), eta abar.

Aranzadik aipatzen ditun *tabak*, umen jostallu bezala, bere izen zerrenda-txua ere badu. Adibidez, *boltxaharria* (Baigorri) eta *puxtarrie*, Berastegin.

Umeen jokuek, emen ikutu ditugun beste gai batzuen antzera, errez itzaldi bat osatuko luteke.

Aranzadik dantza ez du aaztuta uzten. Ez dakit bera dantzaria zan edo ez. Ni beiñepein ez naiz dantzaria, oraindik gutxiago beste batek nai dun doiñua-rekin.

Yubal omen da *cítara* eta txirula jotzaillien aita. Nola lantzen diren txistua eta dultzaina, ezagutua naiz.

Gogoan det Azkoitiko «Mira-Monte» baserriko dultzainagillea, Jose Sdupe zana.

Zurari-bear zituan zuloak egin ondoren, doiñua frogatzeko prest utzirik, Sodupek onela esan ziran: *Jarri da egurra izketan.*

Los maceros de Bilbao, San Sebastián, etc. son un producto exótico, como los gigantes y cabezudos, dio Aranzadik.

Giganteak edo erraldoiak jainkoen semeen eta gizonen alaben naaste-borrastetik jaiokak ditugu. Buruaundik, berriz, gizontxoekin naaspillatzen dira. Badakigu gixontxoek lur azpiko meatzetan lan lekua zutela, eta lur barnetik irtetzeko zugaitzak bere barnean daramaten mailladi edo eskalleratzaz baliatzen zirala.

Tolosan egin ziren Iruñiarako erraldoi edo giganteak, 1657 garren urtean. Berri au Inazio Baleztenari entzun nion 1956 garren urtean Tolosan eman zuan itzaldi baten.

Geroztik irakurria det gauz bera, aipatutako Baleztenaren lan batean. Onela dio *Navarra - Temas de Cultura Popular. Comparsas de Gigantes y cabezudos* (n° 3, p. 12) izena daraman liburuxkan:

Vivía allá por los años de 1657, en la capital de Guipúzcoa, la M.N. y Leal villa de Tolosa, un honrado y optimista ciudadano llamado Francisco de Azpillaga, hombre digno de llenar una colección de páginas de gloriosa historia de su patria, pues su misión en este triste mundo, fue la de regocijar la existencia de los infelices mortales, fabricando gigantes, cabezudos y otros no menos serios menesteres. A él acudieron los rexidores de Pamplona en 1657, rogándole fabricase ocho cabezas de gigantes iguales o parecidas a las que Joanes de Lope-rena le llevaría en su macho, para que le pudiesen servir de norte, guía y modelo en el difícil desempeño de su importantísima misión.

Gaxotasunak eta eriotza, adibidez, beste baterako utzirik, lerro auen amaiera nere erriko erraldoien oroigarri alaiakin egingo det.